



Bilboko
Elizbarrutia
DIOCESIS DE BILBAO

**BESTEekin
BATERA
GARA**

ERANSKINA
LAGUNTZAILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

Besteekin batera gara¹

Sarrera

Jainkoak, maitasun hutsez dena oparitu digula gogoratu eta bihotzetik pasatu dugu Kreaioaren gaia landuz eta orain honako honi helduko diogu beste hau ikusteko: maitasunez sortu duela guztia eta kreaioan gizaki bakoitza, pertsona bakoitza, gutariko bakoitza, baliotsuena garela.



Multzo honetan, Jainkoaren kreaio sentitzearen esperientzia horretan sakontzen jarraituko dugu. Jainkoak, sortzean, makina bat aukera eta gaitasun eman digu: zentzumena, sentiberatasuna, adimena, trebetasunak... Guzti horiez balia gaitzke gure inguruarekin, besteekin eta Jainkoarekin hartu-emanen bizitzeko, "harremanean gauden izaki" baikara.

Multzo honetako saioetan, gure gorputzaz jabetuko gara, honen bidez sentitzeko, ikasteko eta adierazteko gauza garen guztiaz. Horretarako irudikapena landuko dugu parrokian, bai haurrekin eta bai gurasoekin ere. Eta Jainkoaren Hitza -Talentuen parabola- entzunez, Jainkoak gutako bakoitzari oparitu dizkigun dohain eta gaitasunez jabetu, horietan sakondu eta mundu hobearen eraikuntzarako eskainiko ditugu.

SENTITZEKO GAUZA



Batasun bat gara, gorputza eta espiritua. Bere izate guztian, gizakia Jainkoaren irudia da, gorputza espiritua bezain gizatiarra da. Gorputza, zentzumenak, errealitatera hurbiltzen gaituzten leihoak dira, beste gizakiekin harremanak izateko bitartekoak. Beraien aurpegiagatik, zeinuengatik, ezagutzen ditugu. Ez gara haragi gabeko gizaki. Jesus gutariko bat egin zen, gorputza izan zuen, zaindu eta maitatu egin zuen, eta, sarri, bere gorputzaren bitartez erakutsi zigun bere maitasuna. Jesusen giza-zeinu bakoitzean (bere ferekan, bere begiradan e.a.) ezagutzen dugu nolakoa den Jainkoa.

Beraiekin bizi garenon (gurasoon, hezitzaileon...) mezuen arabera osatuko dute hurrek beraien gorputzaren irudi zuzena ala okerra. Ona da beren gorputz baliotsua ontzat jotzen eta baliosten lagun diezaiegun. Hurrari ez zaio batere zaila egiten bere burua gorputzaren bitartez agertzera ematea. Ideiekin baino errazago egingo du. Gorputza adierazpen-bide bezala lantzen gehiago ikasi behar dugu, bai katekesian bai hezkuntza orokorrean. Eginkizun txundigarria da umeei beraien zentzumenak, berezko aberastasunak, lantzen laguntzea: izadiari begiratu, gauza berriak ikusi, hotsak entzun, pertsoneri aditu, eskuekin zenbat gauza egin dezakegun konturatu, gauzak usaindu, gauzak dastatu, bizitza dastatu...

¹ Katekesirako Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Ordezkaritza eta Idazkaritzek argitaratutako gida pedagogikoetako *Esnatu!* 1. kurtsoko 5. gaitik eta *Etorri ospatzera!* 4. kurtsoko 3. gaitik hartuta. 2010 - 2014.

Jesusengan gutariko edozein bezalako egitea nahi izan du Jainkoak, ondorio guztiekin. Ez du bere gorputza arbuiatu, alderantziz baizik, Jainkoak gizadi guztiari dion errukiaren, samurtasunaren, ferekaren tresna egin du.

Maiz agertzen da Jesus bizia ematen bere gorputzaren adierazpenen bitartez: bere begiradaren, bere hitzaren, bere laztanen, bere malkoen, atsekabe eta poztasunetan gizon eta emakumeekin bat egitearen bitartez. Beti ikusten dugu Jesus begiak errealitateari irekita: begiratu egiten du, ikusi egiten du; Jainkoak ematen diguna bilatzen eta aurkitzen irakasten digu. Samurtasunez hurbiltzen zaie gizakiei: umeak laztantzen eta besarkatzen ditu; gaixoak ukitzen ditu, bera ukitzen uzten dio emakume bekatariari, eskuak gainean jartzen ditu, atseginez hartzen du bila ari dena; bihotz-zabaltasunez barkatzen du, gaixoa sendatzen du, barrutik eta kanpotik sendatzen du, lagundu egiten du, babesgabea adoretzen du.

Jesus tristetu egiten zen, beste hamaika gauzak itsututa, denentzako den Jainkoaren Berri Ona aurkitzeko gauza ez zirenengatik: "Begiak dituzte eta ez dute ikusten, belarriak eta ez dute entzuten..."

Jesusengandik ikas dezakegu eta Berarengandik hartuta irakatsi, izadia Jainkoak gizakiarentzat egindako lan bezala ikusten; errealitatea entzuten, gozatzen eta dastatzen; bizipoza geure gorputzarekin azaltzen; besteekin harremanean jartzen bai hitzekin eta bai laztan, besarkada, malko, eta antzeko keinuekin ere; Jainkoaren aurrean geure gorputzarekin ere otoitz egiten, goresten, parka eskatzen, poza adierazten.

JAINKOAK ARDURATSU NAHI GAITU

Jainkoaren antz eta irudiko egindakoak bagara eta Jainkoa sortzailea eta bizi-emailea bada, ondorioa argia da: geuk ere sortzaile, Jesusek hasiera eman zion Erreinu horren eraikitzaile izan behar dugu. Jainkoak, gaitasunak, aukerak eta balioak ipini ditu gutariko bakoitzarengan, beraiez goza dezagun eta, gainera, lan ditzagun. Jainkoaren sortzaile-kide izan behar dugu, beraz. Mundua gizatiarrago eta duinago egingo duten bizi eta itxaropenezko fruituak itxaroten ditu zuregandik eta niregandik.



Gure gaitasun guztiak trebatu egin behar ditugu, beraiekin saioak egin behar ditugu eta erein, beren xedea fruitu ugari ematea delako.

Baloratzen ez dituenak, bere jabetza eta merituen emaitza direla uste duenak, doan ematen zaizkigun balioetat hartzen ez dituenak, ez ditu aprobetxatuko aukera horiek eta, ondorioz, alferrik galdu eta zimeldu egingo dira.

Eskarmentuz dakigu, doan eta eskuzabaltasunez besteei laguntzen diegunean, elkertasunez jokaten dugunean, egiteko eta ahaleginak elkarlanean burutzen ditugunean, behar duenari lagun egiten diogunean, biziz beterik sentitzen garena, geure burua handiagotu egiten dena. Gure bizitzak, orduan, sortu zenean egotzi zitzaion helburua bete du: gure inguruan bizi gehiago sortu.

Fedea ez da, babeste aldera, kutxa gotorrean gordetzen den zerbait, bestearen aldeko maitasunean eta eskaintzan adierazten den bizia da, "egintzarik gabeko fedea, fede hila" baita.

Jesusek dei egiten digu gure munduan bere presentziaren tresna eraginkor izan gaitzen. Zure eskuak, zure ahalegina, zure lankidetzeta, zure eskaintza, zure konpromisoa, Jainkoak gure mundua hobetzeko dituen bitarteko bikain dira. Jar itzazu lanean!

BIZILAGUN IZANIK ZORIONEKO IZATEKO DIOSKU JAINKOAK

Gizakia, hartu-emanen osatzen den izakia da. Beste gizaki batzuekin bizi da, bizikidetasuna landuz, bere burua ezagutzera emateko eta gizaki bezala hazteko eta heldutasuna iristeko balio dioten hartu-emanerako taldeak sortzen ditu. Familia da harremanak izateko eta beste batzuekin batera bizitzeko dugun lehen taldea. Hartu-eman honek gure oreka emozionalerako ezinbestekoak diren maitasunezko lokarriak sortzen ditu. Gero, harremanetarako eremu hori beste batzuegana zabaltzen da apurka-apurka: adiskideak, lankideak, hurkoak, auzokideak...



"Bakantzat" jotzen ditugu besteekiko hartu-emanari atak ixten dizkietenak, jendearengandik aparte bizi direnak, beste batzuen presentziak etengabe traba egiten dienak. Besteekin bizikide izaten, sarritan gure pentsamoldearekin edo bizimoduarekin bat ez datozen pertsonekin hartu-emana izaten ikastea, guztiz aberasgarria da eta heldutasuna lortzen laguntzen digu.

Gaur, gure gizarteak, kultura-trukea ahalbideratzen du. Arraza, kultura eta sinesmen desberdinetako pertsonekin bizi gara gure hirietan. Honek, desberdintasunean dagoen aberastasuna onartzeko eta baloratzeko balio du.

Baina ez dugu harreman bera lagun guztiekin. Batzuetan, beraien intentsitatearen arabera sailkatzen ditugu harreman horiek. "Lagun min" deitzen diegu, inoiz traizionatuko ez gaituztela jakinda, gure sekreturik handienak kontatzen dizkiegunei. Beste batzuei, besterik gabe, "ezagun" esaten diegu, beraiekin azaleko harremana dugulako.

Esperientziak diosku ezinbesteko dela hainbat jarrera gizakien arteko bizikidetasun onari eusteko eta jarrera horiek, lantzen baditugu, besteekiko harreman egonkor eta sakona ahalbideratzen dutela. Errespetatzen ikastea, bestea bere hutsegite eta abileziekin onartzen jakitea, norbait iraindu dugunean barkamena eskatzeko edo min egin digutenean barkamena emateko prest egotea, beti eskuzabalak izatea... bizikidetasun sana dakarten bizitzeko era dira. Era berean, jarrera negatiboak, esate baterako norberekeria, ezinikusia, inbidia, gaiztakeria... alde batera utzi behar ditugu, gizakien arteko hartu-emana hoztu eta oztopatu egiten dutelako.

Jainkoak maite gaituelako sortu gaitu eta gure artean ere maitasun, abegi eta hurkotasunezko harreman horiek izan ditzagula nahi du. Jainkoa Aita da eta poztu egiten da guk, bere seme-alabok, bake eta senidetasunean bizikide izaten dakigunean. Kristauok badakigu Jesusek oso gustuko zuela era guztietako pertsonengana hurbiltzea, haiek entzutea eta haiekin hartu-emana izatea. Eta pertsona horiek Jesusen presentzia ospatzen zuten, ziren bezala onarturik eta maitaturik sentitzen zirelako. Sineste dunentzat, Jesusek, gizakiei begiratu, entzun eta babestu egiten zituenean agertzen zuen era eta estiloa da jaso dezakegun irakaspenik onena besteekin bizitzeko eta bizikide izateko.

Amaitzeko, ...

**Ikusteko,
klikatu irudian**

